

NOLA ERREGISTRATU LANKIDETZAKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKO BULEGOAREN BITARTEZ


2018ko Garapenerako Lankidetzarako Diru-Laguntzen Deialdira eskaera aurkeztu ahal izateko modu bakarra elektronikoa izango da.

Gida honen xedea da izapide hori ahalik eta gehien erraztea.

Lehenengo eta behin, www.getxo.eus gunera joan behar dugu eta bertan, goiko aldeko euskuin aldean Administrazio Elektronikoko Bulegoa aurkitzen dugu.




Behin Administrazio Elektronikoko Bulegora sartuta pantaila horrekin topatuko gara, bertan zehazten da zeintzuk izan behar diren jarraitu behar ditugun pausuak ziurtagiri elektronikoa lortu ahal izateko, eta horretarako beharrezkoa den softwarea instalatzeko estekak.




Aplikatioan sartzeko gomendatzen da **Itsasontzi-jokoa** sarbidea erabiltzea ez delako behar txartel irakurgailurik; horretarako **Izenpe**-ren txartela erabili daiteke.

Behin eta gure datuekin sartzea lortzen dugunean, Administrazio Elektronikoko Bulegora sartuko gara.


Ezkerraldean egin ahal ditugun hainbat izapide agertzen dira, beraien artean **TELEMATIKO ERREGISTROA** agertzen da, bertan **ESKAERA EGIN**en klikatu beharko dugu.




Gerta liteke hau izatea Erregistrora sartzen garen lehen aldia, horrela bada Nire identifikazioan, eskatuko didate gorde gabe dauden datu batzuk sartzea (litekeena da telefona eta posta elektronikoa eskatzea). Horretarako ALDATU-n klikatu beharko dugu eskaerarekin jarraitu ahal izateko.



Datuak sartzera koan normalena izango da pertsona fisiko batek eskera egitea elkarte edo pertsona juridiko baten izenean. Kasu horretan, elkartearen datuak NIRE ORDEZKAUTAREN bitartez egingo dugu, horretarako BERRIAN klikatuko dugu.



NIRE OHARPENean, Xede Erakunda, Getxoko Udala izango da eta Eskaera Ohapren Eredua, **Lankidetzako Proiektuen Laguntza Eskaeran** klikatu beharko dugu




Datu espezifikoetan, ondokoak eskatzen dira:

- Proiektuaren izenburua.
- Herrialdea.
- Kokapen zehatza.
- Sektore-kodea, leihatila irekitzen da.
- Hasita dagoen proiektua da? Horrela bada markatu laukian.
- Emakume parte hartzaileen kopurua.
- Hasiera data. Data idatzi daiteke edo bestela egutegian klikatu aukeratzeko.
- Bukaera data.
- Jarduen kostu osoa.
- Eskatutako diru-laguntza.
- Eskaera orria, Word, Zip edo pdf formatuetan atxikitu daiteke.
- Proiektuen eskaera normalizatutako ereduaren arabera: lankidetzakoa, sentsibilizaziokoa edo giza ekintzakoa. Bakarrik eskaera bakarra egin behar da, proposamen bat baino gehiago aurkeztu nahi bada, beste bat egin beharko da; eskaera bakoitza espediente bat delako.
- Administrazio dokumentazioa ere txertatu beharko da eskaeran.
- Beste dokumentuak...
- Atxikitu beharreko fitxategietan, gehienez erantsi daitekeen artxiboen pisua (Mb).zehazten da

Behin, prozedura bukatu eta gero, pdf bat sortuko da, zeinak inprimatu, gorde edo ikusi ahal izango da. Bertan, eskaeraren oinarizko datuak agertuko dira, erregistro zenbakia eta noiz egin denaren data agertuko dira, besteak beste.

Honen antzeko kopia jasoko da:



GOMENDIO OROKORRAK:

- Internet Explorer nabigatzailea erabili.
- Izenperen txartela erabilia, itsasontzi-jokuen sarbidea hautatzen bada, txartelaren zenbakiaren lehenengo hizkia "i" larria da.
- Datuak betetzerakoan ez erabili honako sinboloak: /, -, *...
- Gehienezko denbora eskaera egiteko ordu batekoa da.
- Atal zehatz batean dokumentu bat baino gehiago erantsi nahi bada zip. edo rar. formatuak erabili daitezke.
- Word, Excel, pdf, formatuak onartzen ditu plataformak.